



HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURAREN BILDUMA

Donamartiriko herriko kontseilua 2018ko uztailaren 24an bildu da, 19:00etan, Antton LARRABURU Auzapeza bilkuraburu zutela.

Hor zirenak: LARRABURU Antton, ARMENDARIZ Alain, APHECETCHE Alain, CHABAGNO Inès, HARISMENDY Emmanuelle, MINONDO Mirentxu, POCHELU Didier, POCHELU Bernadette.

Hor ez zirenak: LADEUIX Jean-Pierre, BORDARRAMPE Xalbat -ahalordea Alain ARMENDARIZi emanik-, MIRANDE Mathias -ahalordea Antton LARRABURUri emanik-

Bilkurako idazkaria: HARISMENDY Emmanuelle Bilkuraren hastea: 19:00

1/ HAZPARNEKO Gizarte Ekintzarako Herriko Zentroarekilako hitzarmena, apairuak etxeetan banatzeko

HAZPARNEKO Gizarte Ekintzarako Herriko Zentroak apairuak etxeetar eramateko zerbitzu bat segurtatzen du, bere Herrian, baina zerbitzua Hazparneko Lurralde Eremuko herriei ere zabaldu die.

2016ko urriaren 17ko deliberamenduaren bidez, Administrazio Kontseiluak apairuak etxeetara eramateko hitzarmenak onartu ditu eta apairuaren prezioa 9 €-tan finkatu du.

HAZPARNEKO Gizarte Ekintzarako Herriko Zentroak eta DONAMARTIRIKO Herriak hitzarmen bat izenpetu behar dute, DONAMARTIRIKO bizilagunek zerbitzu hori baliatu ahal izan dezaten.

Herriko Kontseiluak, aho batez, Auzapezari galdegin dio Gizarte Ekintzarako Herriko Zentroarekilako hitzarmena izenpetzea.

2/ Bil Etxea gela alokatzean hautsi baxeren ordaintzeko tarifen taula plantan ezartzea, eta barne araudia horri buruz eguneratzea

Auzapezak 015-2016 deliberamendua -2016ko buruilaren 20koa- oroitarazi du, non Bil Etxearen alokatzeko tarifak eta haren barne araudia finkatuak baitira.

Biltzarrak erabaki zuen baxerak alokatzaileen eskura uztea eta alokatzean hautsi baxera ororen ordainaraztea, baxeren erosteko prezioan oinarritu tarifen taula baten arabera.

Tarifen taula proposamena irakurri eta, Herriko Kontseiluak presentatua izan zaion tarifen taula onartu du eta erabaki du barne araudia horri buruz eguneratzea eta 2016ko buruilaren 20ko 015-2016 deliberamendua betetzen segitzea, aldatu gabe.

3/ Hilerriko kontzesioen prezioen eta moldeen berrikustea

2014an, Herriko Kontseiluak kontzesio berrien tarifak berrikusi zituen, betiereko kontzesioa 100 €-tan ezarri.

Orain, herriko hiliarria hobeki kudeatzeko gisan, proposatua da kontzesio horiek berrogeita hamar urtekoak bilaka daitezela, 100 €-ko prezioan, Herriak betiereko kontzesioak nekez berreskuratuko baititu, beren gisa utziak baldin badira. Horri esker, egun batez hilerrian ez baldin bada gehiago lekurik, berrituak ez diren kontzesioak berriz hartzen ahalko ditu Herriak, hilerrri berri bat sortzeko partez.

Herriko kontseiluak, aho batez, berrogeita hamar urteko kontzesioak 100 €-tan saltzea onartu du.

6/ Beste gaiak

- **Hilerrria: plano topografiko baten egiteko aitzinkontu baten ontzat ematea**
- **Free Mobile radiotelefonía errepikagailu baten ezartzeko galdea**
- **Langileei buruzko puntua:**
 - ❖ **egutegia berrikusi behar da, eskolako astea 4 egunera pasatu baita**
 - ❖ **Isturitzeko astialdi zentroa eskolako oportetarik kanpo astelehenetan irekitzea**

Bilkura bururatzea: 20:15